

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Temperatura baxuekin baratzak moteldu dira

Patatak, bazka-artoak eta belardiek ondo hartu dute euria Atlantikoko Nafarroan eta Pirinioetako zonan

Miércoles, 03 de agosto de 2011

Uztailaren 22tik 29ra ipar haizea, egun hodeitsuak eta garai honetako tenperaturak baino batz besteko baxuagoak izan genituen. Prezipitazioak batez ere kantauriar eragineko eremuetan eta Pirinioetako zonetan izan ziren.

Erkidego osoan izandako eguraldi freskoa medio, aurrerapen fenologikoa erakusten zuten baratza batzuetan garapena moteldu egin zen, nahiz eta landareek itxura ona izan eta garai hauetako fase fenologikoetan aurkitzen diren.

Lehorreko sailetan, euria ia pasadizozkoa izan denez, zerealak eta lekadunak biltzeko kanpaina amaitzen ari da. Ipar-mendebaldeko eskualdean eta Pirinioetako zonan, barietatea biderkatzeko patata-laborantzek eta artaberdeek nahiz belar-soro eta larrediek gustura hartu dituzte prezipitazioak. Isurialde kantauriarrean oso garrantzitsuak izan dira; zona askotan, gainera, metro karratuko 100 litrotik gora erregistratu dira.